

Turista nekagaitzak

URDAIBAI BIRD CENTER, HEGAZTIEN BEHATOKIA

EIDER CONDE URDAIBAI BIRD CENTER (UBC)

EXTERREAN, URDAIBAI BIRD CENTERRO BEHATOKIA, PADUREN ERTEZ-ERTZIAN, BEHEAN, MOKOZABALA.

UBC

(URDAIBAI BIRD

CENTER) BEHATOKIAREN

AURREAN ORUETAKO AINTZIRA

DAGO. URTE ASKO LEHORTUTA EMAN

ETA GERO, LEHENGORATU DUTE.

BERTAN 200 HEGAZTI ESPEZIE

IKUSTEN DIRA URTEAN.

Zerua zeharkatzen ikusi ditugu. Guretzat une bat baino ez da, hegoalderantz milaka kilometroko bidaia luzean istant bat. Guk desiratu besterik ezin duguna egin, haiek egiteko gauza dira: hegan egitea. Guretzat nahiko genuke dohain hori.

Turista nekagaitz horietan, enarak bezalako bidaiari bikainak daude, 8.778 km egiteko gauza baitira 18 gramoko gorputz ttipiarekin. Horixe da, hain justu, Aranzadik Araban eraztuna jarri eta Hegoafrikara heldu den enararen ibilbidea.

Eta galdera galapan dator-kigu: inon gelditu gabe egin ote zuen? Ez. Enara ibilbide luzeko migratzailea da, Sahara zeharkatzen duenetakoa. Bidaia egunez egiten du, hegan egiten duen bitartean intsektuak jaten dituelako. Gauero, enara-saldoak hezeguneetako kanaberadi eta lezkadietan elkartzen dira, atsedean hartzeko. Horra hor hezegune horiek behar bezala babesteko garrantziaren nondik norakoa, hegaztien migrazioetako ibilbideetan.




Urdaibaiko padurak dira gure bidaiarientz atsedean lekuak. Eta Urdaibai Bird Center (UBC) haiei buruzko ikerketak egiteko eta haien baberako ezagutza zabaltzeko zentroa da.

Garrantzi handikoa da animalia horien migrazio bideak ezagutzea, horrela jakingo dugulako zer nolako lekuak gustatzen zaizkien, non nahia-godu duten atsedean hartu eta, azkenik, neguan zein aldetan egoten diren. Bestela esanda, hegaztien joan-etorrien ikerketen bidez migrazioen konektibitatea aztertuko dugu, alegia, hegazti batek (edo multzoak) urtean erabiltzen dituen pausalekuen zerrrenda. Toki horien elkarren artean urrun egon daitezke, Artiko itsasoa eta Sahel basamortuko hezeguneak, adibidez.

UBCeko ikertzaileek hamarretik gora ikerkuntza proiektutan dihardute, hiru lan ildo nagusiren inguruan: hegaztien dinamikak eta migrazio-konektibitatea, hegazti migratzaileen portaera pausalekuetan eta Urdaibaiko hegaztiak bere inguruan nola baliatzen duten.

Europar bada Urdaibai Bird Center bezalako gunerik, Britainia Handia eta Finlandian, baina Iberiar Penintsulan bakarra da, zeren eraikin batean ikerkuntza eta ikerketen zabalkuntza (ia aldi berekoa) uzartzen baititu.



HEGAZTIAK

Mota guztietako ur-hegaztiak ikus daitezke inguru horretan, basoetako, landetako nahiz haitzetako espezieak ahaztu barik, Urdaibaiko zein aldetan gauden. Urdaibai Bird Centerren aurrean aintzira dago, non urtean zehar ia 200 hegazti espezie biiltzen diren, ia denak uretakoak.

Oso ohikoa izaten da mokozabala, lertxuna, ubarroia, martin arrantzalea edo kuliska iluna bertatik bertara ikustea. Urdaibai Bird Centerren datorren bisitariak espezie horiek guztiak ondoko behatoki hauetatik edukiko ditu ikuskai:



GOIAN, ORUETAKO AINTZIRA ETA PADURAK. BEHEAN, UBCKko INSTALAZIOAK.

UBCK
BISITA GIDATUAK
ANTOLATZEN DITU HALA
IKASLENTZAT NOLA HERRITAR
ORORENTZAT. HORREZ GAIN, BISITA
NORMALAK ERE EGIN DAITEZKE,
ASTEBURUETAN.

OZOLLO Behatokia Ozollo auzoan bertan dago. Oruetako paduretako ur sakonenak, Nekesoloko lezkadiko zati bat eta meandroi ikusten dira bertatik. Alderdi horretatik hegazti ugari igarotzen da.

ORUETA Antzinako lantegi batean dago behatokia, Orueta auzoan. Ur gezetako aldea zein estuarioko marea dinamikarekin lotutakoa (ur gazikoa) ikusteko parada dago hemen. Gainera, neguko asketan hegazti paseriforme txikiak antzemango ditugu.

Nabarmentzekoa da antzina lehortu eta orain dela gutxi lehengoraturako Oruetako zingira, Urdaibaiko hezegune 'berria' alegia, aldaketa horren ondorioz ur hegazti espezie ugariaren biltoki bilakatu delako. Horietao batzuk ez dira ohikoak izan Urdaibain. Gainera, zankaluzearen umaldi arrakatsua ere alderdi horretan gertatu da 2012ko udan. Horixe dugu, hain zuzen, euskal kostaldean erregistraturako lehenengoa.



ZABALKUNTZA


Ildo zientifikoa zein dibulgaziozkoa bat etortzen dira Urdaibai Bird Centerren. Helburu nagusia Biosferako Erreserbako hegaztiak eremu hori nola erabiltzen duten hobeto ezagutzeko da, baita jakintza hori gizar-teratzea ere, hegaztien bizileku horiek haien beharrezko kontuan hartuta kudea ditzaten.

Gainera, umei zuzendutako programak ere badira, eskola-txikietan gauzatuta. Hegazti eskola, esate baterako, Montorre (Gautegiz-Arteaga) eta Urretxindorra (Muxika) eskolen ardura da. Neguan umeek hegaztientzako habia-kutxak eta jateko askak ipintzen dituzte. Urretxindorra eskolan urtero *fringillidae* eta *paridae* familietako aleei jarraipena egiten diete eraztunak jarri; hegazti horiek berriz ere harrapatu ondoren, geografia, matematikak, natur zientziak, hizkuntzak edo informatika lantzeko aukera ematen dute. Azken batean, hegaztien bidez ikasgai guztien arteko lotura sortu dute.

Elai Eskola ere badago. Elai (enara) baserri aldeari estu lotuta dago, baserrietan bertan egiten dituelako habiak. Horregatik baserri-tarrek ondo baino hobeto ezagutzen dituzte haren ohiturak, biologia eta bere kontra dituen mehatxuak.

Baina enararen loturak ez dira euskal baserrietara mugatzen. Hegazti honi harrera gozoa egiten zaio Europa osoan eta, horregatik, jasaten ari den gainbehera ez da bakarrik ornitologia adituen kezka, gero eta gutxiagotan ikusten duten herritar askorena baizik. Espezie ezaugarri hori faltan igaritzen dute.

Horregatik, Euring elkarteak (hegaztiei eratzuna jartzeko europar taldeak) koordinaturako *Suslow* (enara) europar proiektuarekin lankidetzan dihardute. Egitasmo horren helburua enara sakonago ikertzea da, alegia, ugalketarako parametroak zeintzuk diren, migratze-bideak zehatzago marraztu eta bere iraupenerako dituen oztupoak identifikatzea. Horretarako, Urdaibain, Europako beste leku askotan bezala, habietan



GOIAN, ZANKALUZA. BEHEAN, ANTZANDOBIA ARLUNTA ETA HEGAZTIEN-TZAKO JATEKOAK.



hegaztiak markatzen dira, hala ugaltzerako gai diren helduak nola gainerakoak. Datu horiek gehitu behar zaizkie Afrikan enarek egiten duten nega-pasako emaitzak, gero eta jarraipen gehiago egiten baitzaie. Horrela, espeziearen egoera zertan den hobeto ezagutzeko moduan egongo gara.

Azkenik, UBCK hegaztiei eraztunak ipintzeko eskolak ematen ditu. Helburua eraztun jartzaile gehiago sortzea da. Horrez gain, ornitologian hasteko eskolak ere eskaintzen ditu, hegaztiak ezagutu nahi dituzten pertsona guztiei irekiak.

URDAIBAI BIRD CENTER (UBC)
ORUETA AUZOA 7, GAUTEGIZ ARTEAGA (BIZKAIA).
BISTAK: (34) 699 839 202
www.birdcenter.org

